

PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Zurriola Maritimoaren emakidarako plegua onartu da

Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako beste gai batzuk: Next Funtsak, Harria parkea, Arraun txapelketetarako dirulaguntzak, Harria Parkea, Papin Industrialdea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Zurriola pasealekuko 41. zenbakian (Zurriola Maritimo-ZM) dagoen eraikinaren erabilera lagapena prozedura irekiaren bidez esleitzeko Administrazio Klausula Berezien Plegua, ostalaritza zerbitzuetarako (taberna-jatetxea) eta/edo jarduera nautikoekin lotutako prestakuntza ikastaroak emateko eta biltegirako.

Eneko Goia alkateak azpimarratu duenez, “albiste bikaina da denbora gehiegi geldirik zermanan egoera bati irtenbidea eman ahal izatea. Horri esker, donostiarrek hiriko funtsezko leku batez gozatzeko aukera izango dute”.

Eraikinak honako espazio hauek ditu:

- **Kaleko solairua:** 404 m²-ko lokala, eraikinaren zati den terraza bat hondartzaren gainean hegan egiten duena, 41 m²-ko azalera, eta 150 m²-ko ostalaritzako terraza, Zurriola hiribidean.
- **Hondartzako solairua:** 183 m²-ko lokala. Korridore perimetralerako bi sarbide ditu (jatorrian, hondartzara irekitako portxea), eta, bertatik, hainbat udal sartzan da. Handik, hondartzara sar daiteke, bi aldeetako aldapetatol eta pasealekuaren goiko mailatik abiatzen den erdiko eskaileratik.

Lagapenaren baldintzak hauek dira:

- Eraikina bere izaeraren arabera erabili beharko da, eta taberna-jatetxe jarduerarako eta/edo jarduera nautikoekin zerikusia duten prestakuntza- eta biltegi-ikastaroak emateko baino ez da erabiliko
- Esleipendunaren kontura izango dira ondasuna helburuaren arabera erabiltzeko behar diren obrak. Obra horiek 710.000 eurotan zenbatu dira, BEZik gabe, eta horietatik Udalak gehienez 300.000 euroko ekarpena egingo du.
- Araubide ekonomikoari dagokionez, gutxieneko kanon finko bat izango da, gorantz hobetu daitekeena, 30.208 eurokoa, gehi dagokien BEZa, lagapenaren lehen 10 urteei dagokionez eta 60.000 eurokoa, gehi dagokien BEZa, hamaikagarren urtetik aurrera eta kanon aldakor bat: urteko zerga aurreko mozkinen gaineko % 4 lehenengo 10 urteetan, eta urteko zerga aurreko mozkinen gaineko % 8 hamaikagarren urtetik aurrera.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

- Lagapenaren iraupena 2033ko abuztuaren 19ra artekoa izango da, eta 2042ko abuztuaren 19ra arte luzatu ahal izango da, betiere Udalak ondasuna erabilgarri badu.

Next Funtsak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du iraupen luzeko zainketen arloko berrikuntza proiektu pilotua egikaritzeko emandako 246.661 euroren laguntza. Zenbateko hori azpiproiektuaren guztizkoaren (246.661 euro) %73,12 da. Azpiproiektua 2022 eta 2023 urteetan egikaritzeko da, eta haren ardura **Gizarte Ekintzak** izango du.

Proiekturen helbiurua honako hau da: proiektu pilotua diseinatzea, laguntzaileak prestatzea, prestatzen ari diren pertsonak ordezkatzeko, agenteekin eta lan-mahaiekin koordinatzea (Osakidetzako osasun-arduradunak; Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak; integrazio sozialeko eta aisialdi komunitarioko udal-arduradunak eta beste agente komunitario batzuk) eta beste egitura-kostu batzuei aurre egitea (hornidurak, telefonoak eta ordenagailuak, prestakuntza-materiala, beste profesional batzuen aholkularitza, behar izanez gero).

Arraun txapelketetarako dirulaguntza

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Ur Kirolak SND-ri 125.000 euro ematea, 2022ko urriaren 27tik 31ra bitartean egingo diren 2022ko Europako Itsas Arraun Txapelketak eta Beach Sprint 2022 txapelketak antolatzeko zuzeneko dirulaguntza gisa.

Ekitaldiak kirol jarduerak jasoko ditu batez ere, baita hasiera eta amaiera zeremoniak, prentsaurrekoak, sariak emateko zeremoniak, gala afariak eta adostu daitezkeen beste jarduera ofizial batzuk ere. Ur Kirolak Kluba arduratuko da txapelketa horiek antolatzeaz, eta Udalak finantzatzeko ditu zuzeneko dirulaguntza baten bidez.

Harria Parkea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Herrera pasealekua, 49-71 zenbakien artean, hobetzeko obrak kontratatze espedientea, Harria parkearen ondoan (Pikabea), 341.656 euroko lizitazio aurrekontuarekin eta 4 hilabeteko egikaritze epearekin.

Obra horien bidez, Herrera pasealekuan 49-71 zenbakien eta Harria parkearen artean dagoen sekzioa aldatuko da, ingurune horretako irisgarritasuna hobetzen dela bermatzeko.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Horretarako, parkearen eustormaren eta bateriako aparkalekuaren artean dagoen espaloi txikia kenduko da, eta etxebizitzetatik hurbilen dagoen eremura eramango da. Gaur egungoarekiko atzeraemandako eustorma berri bat eraikiko da, bideak zabalera nahikoa eta homogenea izan dezan. Zabalera horrek 2 metroko neurriak izango ditu espaloirako, 2,75 metroko bi zirkulazio-errei eta 5 metroko sakonerako bateria-aparkaleku bat.

Papin industrialdea

Tokiko Gobernu Batzordeak behin behineko onarpena eman dio Papin eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari.

Dokumentuaren funtsezko edukia eremu horretan indarrean dagoen hirigintza araubidea aldatzea da, lehendik dauden industria garapenak finkatuz. Beraz, eremuko lur guztiak erabilera indistrial tipologiako zonalde global batean sartuko dira.

Gainera, eremua birgaitu nahi da, espazio libre publikoak handituz eta urbanizazioa hobetuz. Era berean, Molinao erreka zabalduko da zerupear, eremuaren zatian.

Donostia, 2022ko martxoaren 29a

